



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO LABORATEGIKO ZUZENDARIORDETZARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, HONDAKIN-UREN ARAZTEGIETAN LAGINKETAK ETA ZEHAZTAPEN ANALITIKOAK EGITEKO. ESPEDIENTE ZENBAKIA: 3225.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Francisco Hernani Zabalo
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea hauxe da: Saneamendu Laborategiari laguntza teknikoa ematea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko (BBUP) hondakin-uren araztegietatik (HUA) datozen laginen laginketak eta zehaztopen analitikoak egiteko. 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Kontratatu nahi diren laginketak eta zehaztopen analitikoak beharrezkoak dira HUAen ustiapena kontrolatzeko, ingurune hartzailera isuritako lehentasunezko substantziak kontrolatzeko, Eusko Jaurlaritzaren SEEP erregistroa betetzeko, HUAen ikuskapen-laginketak egiteko (isurketen baimena betetzeko), tratamendu kuaternarioaren errendimendua adierazten duten substantzien analisia egiteko, errautsen analisia egiteko eta HUAen efluenteen analisi mikrobiologikoa egiteko. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Ez da egokitzat jotzen kontratua lotetan banatzea, HUAetatik datozen laginetan laginketak eta zehaztopen analitikoak egiteko laguntza teknikoko kontratua baita. Kontratu horrek elkarrekin lotutako jarduerak jasotzen ditu, eta behar bezala koordinatuta egon behar dute. Inguruabar horietan, uste da kontratua lotetan banatzeak sortuko lituzkeen baldintzek nabarmen kaltetutako luketela azken xedea betetzeko aukera, eta, horrenbestez, kontratua ez da lotetan zatituko.
4.- CPV: 71356200-0 Laguntza teknikoko zerbitzuak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EURO (357.000,00 €), BEZ GABE.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 785.400,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ Kontratuaren balio zenbatetsiak % 10era arteko igoera aurreikusia barne hartzen du (gauzatu beharreko unitate kopuruaren gainean), baina hori ez da joko kontratu-aldaketatzat, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 309. artikuluan araututakoan oinarrituta.	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 16923 22707. - 2026. urtea: 267.750 euro (BEZa gabe) - 2027. urtea: 89.250 euro (BEZa gabe)	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.	
8.- Konturako ordainketak: Kontratuaren zuzendariak hilabetetik gorako entrega-epea duten lanen kontu-abonamenduak egin ahal izango ditu.	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa: URTEBETE (1)
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ epea URTEBETE (01) luzatzeko aukera.
4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: BBUPen instalazioak
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (357.000,00 €)



G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Azken hiru urteetan egindako eta kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda. Urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo gorakoa duten zerbitzuak bakarrik hartuko dira kontuan.
- Honako egiaztagiri hauek dituela frogatu beharko du:
 - ENACen egiaztagiria, ikuskapen-erakunde gisa jarduteko (UNE EN ISO 17020 araua).
 - ENACen egiaztagiria, laborategi-bulego gisa jarduteko (UNE EN ISO 17025 araua).
 - ENACen egiaztagiria, hondakin-uren laginak hartu ahal izateko (UNE EN ISO 17025 araua).

ENACen egiaztagirien indarreko irismena: lizitatzaiaren egiaztagiriak, gutxienez, agiri teknikoaren VII. eranskineko tauletan zehaztutako saiakuntzen % 75 bete beharko ditu. Lizitatzaiarek horiek aurkeztu beharko dituzte kaudimen teknikoa egiaztatzeko.

Preskripzio teknikoen agiriko VII. eranskineko taulak gehitu beharko dira, behar bezala beteta.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Ez da aplikagarria.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai ☒ Ez

H.- LIZITATZAIAREK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskatzen den dokumentazio tekniko guztia (puntuaziorako oinarri gisa balioko du) **MEMORIA** batean sartuko da. Bertan, zehaztapenak betetzen diren ala ez baloratzeko behar den informazio guztia jasoko da. Memoria honako puntu hauetan xehatuta egongo da, argi eta garbi bereizita:

1. Lanak gauzatzeko memoria teknikoa eta metodologia.
2. Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Emitza analitikoak entregatzeko denborak baloratzeko, horiek betetzen direla ziurtatzeko prozedura dokumentatu bat aurkeztu behar da. Prozedura horretan, honako hauek sartu beharko dira:

- Analisi mota bakoitzaren kronograma zenbatetsia.
- Entregak proposatutako denboretan egiteko gaitasuna bermatzen duten ziurtagiriak edo egiaztagiriak.
- Epeak betetzeko konpromiso formala.
- Lizitatzailerak eskaintako **entrega-denborak** eskaintzaren balorazio teknika egiteko erabiliko dira, agiri honen taulan zehaztutako puntuazio-irizpideen arabera.

Proposatutako epea betetzen ez bada, baldintza-agirietako «Zigorrak» atalean zehaztutako zigorak aplikatuko dira.

- Emitzen **kalitatea** baloratzeko, egiaztagiriko zehaztapenei dagokienez, behar bezala bete beharko dira administrazio-klausulen agiriko «Analisien ezaugarrien zerrenda (lizitatzailerak bete beharrekoa)» eranskinetako taulak. Taula horietan zehatz-mehatz deskribatu beharko dira laborategiak parametroa egiaztatua duen ala ez, azpikontratatua den ala ez, aztertuko den konposatu bakoitzerako eta matrize mota bakoitzerako teknika analitikoaren kuantifikazio-mugak, eta kontuan hartutako analito eta matrizeen ziurgabetasun-maila. Lizitatzailerak eskaintako informazio hori eskaintzaren balorazio teknika egiteko erabiliko da, agiri honen taulan zehaztutako puntuazio-irizpideen arabera.

Memoriak gehienez 60 orrialde izango ditu. Honako ezaugarri hauek izango ditu:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 11 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: Bakuna.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Memorian adierazitako informazioa eranskin batekin osatu ahal izango da; eranskin horrek ezin izango ditu 100 orrialde baino gehiago izan. Era berean, webgunean eskuragarri dauden agirien erreferentziak sartu ahal izango dira, aurkeztutako dokumentazioa areagotzeko. Beraz, oso garrantzitsua da informazio garrantzitsura mugatzea, hau da, agiri hauetan zehaztutako balorazio-irizpideekin lotura zuzena duen eta preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako zehaztapen teknikoak betetzen direla frogatzen duen informazioa mugatzea; izan ere, memoria teknikorako ezarri den gehienezko 60 orrialde kopurua eta/edo eranskinetarako ezarri den gehienezko 100 orrialde kopurua gainditzen badira, balorazioan ez da kontuan hartuko hurrengo orrietan jasotako informazioa.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

a) Kontratuaren guztizko aurrekontua eta neurketak:

Prezio-zk.	KONTZEPTUA	Prezio unitarioa	Unitate kopurua urteko	Zenbateko partziala
Ohiko zereginen prezio unitarioak				
1	HUAren 1. motako laginketa (PTPAren 2. atala)		2400	
2	HUAren 2. motako laginketa (PTPAren 2. atala)		500	
3	HUAren 3. motako laginketa (PTPAren 2. atala)		660	
4	Salbuespenezko laginketa larrialdiagatik (unitate 1 = ordu 1) (PTPAren 2. atala)		15 ordu	
5	SEEP erregistrarako laginketa Galindoko eta Durangoko HUAetan (PTPAren 4. atala)		8	
6	Isurketa baimentzeko ikuskaritzaren laginketa (PTPAren 7. atala)		8	
Programatutako analisisien prezio unitarioak				
7	SEEP erregistrarako analisisa Galindoko eta Durangoko HUAetan (PTPAren 4. atala)		20	
8	SEEP erregistrarako analisisa Galindoko HUAren gainezkaidean (PTPAren 4. atala)		1	
9	Lehentasunezko substantzien eta substantzia preferenteen analisisa Galindoko eta Durangoko HUAetan (PTPAren 5. atala)		20	
10	Lehentasunezko substantzien eta substantzia preferenteen analisisa hainbat HUAetan (PTPAren 5. atala)		32	
11	Lehentasunezko substantziak aztertzea lohietan (PTPAren 6. atala)		14	
12	Isurketa baimentzeko ikuskaritzaren laginketen analisisa (PTPAren 7. atala)		8	
13	Kuaternarioko adierazleen analisisa hondakin-uretan (PTPAren 8. atala)		72	
14	Errautsen analisisa (PTPAren 9. atala)		12	
15	Galindoko HUAren hirugarren tratamenduko efluentearen legionella analisisa (PTPAren 10. atala)		12	
16	Galindoko HUAren hirugarren tratamenduko efluenteko nematodo- arrautzen analisisa (PTPAren 10. atala)		24	
Aparteko analisisien prezio unitarioak (PTPAren 3. atala)				
Hondakin-uren analisi orokorrak				
17	pH-a		91	
18	Eroankortasuna 20 °C-tan		91	



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

19	Solido eseki totala		1275	
20	Solido eseki lurrunkorra		5	
21	OEK		132	
22	OEB5		432	
23	Karbono organiko totala		25	
24	N totala		56	
25	N Kjeldahl		5	
26	N-NH3		14	
27	N-NO2		10	
28	N-NO3		10	
29	P-PO4		14	
30	P totala		57	
	Hondakin-uren analisi bereziak			
31	Olioak eta koipeak		67	
32	Sulfuroak		10	
33	Fluoruroak		5	
34	Sulfato disolbatuak		21	
35	Kloruroak		62	
36	Zianuro totalak		15	
37	Fenolak		15	
38	Metal guztien multzoa, ICP bidez (As, Cd, Cu, Cr, Sn, Fe, Mn, Ni, Pb, Ni, Pb, Zn eta beste).		10	
39	Merkurio totala		5	
40	Kromo hexabalentea		5	
41	Formaldehidoa		10	
42	Surfaktante anionikoak		71	
43	Toxikotasuna		5	
44	Lindanoa		6	
45	Legionella spp		12	
46	Nematodo-arrautzak		24	
47	Enterokoko fekalak		15	
48	<i>Escherichia coli</i>		30	
	Isurketen laginen analisi bereziak			
49	PCB		10	
50	HAP		5	



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

51	AOX		5	
52	BTEX		5	
53	Erdilurrunkorrak ekortzea. Konposatu organiko erdilurrunkorrak karakterizatu eta identifikatzea		5	
54	Hidrokarburoen profila		5	
55	Konposatu organiko erdilurrunkorrak		5	
Lohien laginen analisiak				
56	RST eta RSV		20	
57	pH-a		5	
58	Metal guztien multzoa, ICP bidez (Al, As, Ba, Ca, Cd, Co, Cr, Cu, Fe, K, Mg, Mn, Na, Ni, P, Pb, Sb, V, Zn) eta Hg.		23	
Kontratuaren zenbateko osoa:				

Taula honetako zenbatekoetan kontzeptu guztiak azalduko dira, BEZ gabe.

2. taulan aurreikusitako unitateak zenbatespen bat baino ez dira, eta benetan egindako atazak eta unitateak bakarrik ordainduko dira, eskainitako prezio unitarioen arabera, eta ez da nahitaezkoa izango taulan adierazitako unitate guztiak gauzatzea.

Zenbateko partzial bakoitza kalkulatzeko, prezio unitarioa eta 2. taulan zehaztutako unitate kopurua biderkatuko dira.

Kontratuaren guztizko zenbatekoa kalkulatzeko (kontratuaren urteko aurrekontua), 2. taula bete ondoren ateratzen diren zenbateko partzialak batuko dira.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoa aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren beherapen-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren beherapen-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona.
- BBB: Batez besteko beherapen-ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren beherapen-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi beherapen bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BBB)}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBB - B_{max})}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Lanak gauzatzeko memoria tekniko eta metodologia.	Gehienekoa 30 puntu
HUAko eguneroko laginketak planifikatzeko proposamen zehatza, eguneroko ibilbideak barne hartuko dituen, eta HUAetako laginak hartzeko gailuen mantentze-lanen hileko programazioa. Jardueren iraupena justifikatzea, eguneroko ibilbideen hasiera- eta amaiera-orduak jasota.	Eskala: 0 – 7 puntu
Hauen proposamen zehatza: isurketa baimentzeko ikuskapen-laginketen, SEEP substantzien, eta uretan eta lohietan lehentasunezkoak diren substantzien erregistroaren plangintzarena; eta tratamendu kuaternarioaren errendimendua adierazten duten substantzien analisiaren, errautsen analisiaren eta HUAren efluenteetako analisi mikrobiologikoaren plangintza, kontratuaren beharretara egokituko den kronograma batekin.	Eskala: 0 – 7 puntu
Hauek zehatz-mehatz deskribatzea: lagin-hartzaileek egiten dituzten atazak eta lanak gainbegiratzeko jarduerak nola egingo diren, kontratistaren ordezkariak horien jarraipena egiteko duen inplikazio-maila, eta HUAetako lagin-hartzaileek egiten duten lanaren jarraipenerako <i>in situ</i> bisitak.	Eskala: 0 – 6 puntu
Prestakuntza-ikastaroen deskribapen zehatza: proposatutako ikastaroen edukia eta kopurua, egin beharreko ataza nagusiekin duten lotura, ikastaroen modalitatea, ikastaroaren antolatzailea eta beste, baita ikastaroen iraupen-orduak ere.	Eskala: 0 – 4 puntu
Ordezkoen prestakuntzaren deskribapen zehatza, trantsizio arina bermatuko duen eta ordezkapenaren inaktua minimizatuko duen plan egituratu baten bidez.	Eskala: 0 – 3 puntu
Lagin-hartzaileen esku jarritako ibilgailuak kontrolatzeko erabiliko den sistematikaren deskribapena: nola kudeatuko diren konponketak, ibilgailuen azterketa teknikoak, aseguruak... Matxurarik izanez gero ibilgailuak ordeztzeko ezarritako mekanismoa ere zehaztu behar da.	Eskala: 0 – 3 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak:	Gehienez 5 puntu
Lagin-hartzaileei lanak behar bezala egiteko emango zaizkien baliabide materialen ezaugarriak (burdindegiko materiala, laginak hartzeko gailuen ordezkoko piezak, laginak hartzeko botilak, lagin-hartzaileen laneko arropa, arropa garbitzeko zerbitzua eta beste). Era berean, zehatz-mehatz deskribatuko da material hori biltzeko erabiliko den sistematika.	Eskala: 0 – 4 puntu
Adjudikaziodunak duen lokalaren edo biltegiaren ezaugarriak. Hauek bilduko dira bertan: laginketa-materiala, birjartzeko ekipoak, burdindegiko materiala, laginak hartzeko gailuen ordezkoko piezak, lan-mahaia eta beste. Irisgarritasun-baldintzak, gutxieneko azalera erabilgarria eta araudia betetzea baloratuko dira.	Eskala: 0 – 1 puntu

Emitza analitikoak entregatzeko denboren deskribapen zehatza. Proposatutako erantzuteko denborak prozedura dokumentatu baten babesa izan behar du, beteko dela bermatzeko:	Gehienekoa 9 puntu
Aparteko analisisien emaitzak (2. taulako 17.etik 58.era bitarteko errenkadak, aurrekontuaren neurketekin): 5 egun baliodunera arte: 5 eta 10 egun baliodun artean: 10 egun baliodunetik aurrera:	Eskala: 1,5 - 3 puntu 0 - 1,5 puntu 0 puntu
Programatutako analisisien emaitzak (2. taulako 7.etik 16.era bitarteko errenkadak, aurrekontuaren neurketekin): 30 egun naturalera arte: 30 eta 45 egun natural artean: 45 egun naturaletik aurrera:	Eskala: 1,5 - 3 puntu 0 - 1,5 puntu 0 puntu
Presazko azterketa analitikoaren emaitzak*: 48 ordura arte: 48 eta 72 ordu artean: 72 eta 96 ordu artean: 96 ordutik aurrera:	Eskala: 1,5 - 3 puntu 0,75 - 1,5 puntu 0 - 0,75 puntu 0 puntu
*Salbuespena: Ur eta lohietako OEB5 eta metal totalen analisisietarako, 7 egun balioduneko gehieneko epea baimenduko da entregak egiteko, baina horrek ez du eraginik izango atal honen arabera emandako puntuazioan.	



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Administrazio-klausulen agiriko I. eranskineko tauletako <u>parametro egiaztatuen</u> deskribapen zehatza:	Gehienekoa 6 puntu
Parametroen % 85 baino gehiago egiaztatuta egotea: Egiaztatutako parametroen % 50 baino gehiagok % 30etik gorako ziurgabetasuna izatea kuantifikazio-mugan:	Eskala: 0 - 3 puntu 0 - 3 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztean badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAN zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAN adierazitako kasuak eta ekintzak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

Hileko ziurtagirian ordaindu beharreko zenbatekoen zigorra ezarriko da arrazoi justifikaturik gabe atzerapenak gertatzen direnean eta hainbat lan egiteke daudenean.

Zigortuko diren lanak eta aplikatuko den zigorra honako hauek izango dira:

- HUA periferikoetako eguneroko laginketetan ohiko zereginak ez betetzea.

HUAetako lagingen eguneroko entregetan atzerapenak onartuko dira, arrazoi justifikatuak daudenean eta lagingin-hartzailearekin zerikusirik ez dutenean, baina gehienez ere 2 orduko atzerapena izan beharko dute egunean. Atzerapena lanak gaizki antolatzeagatik gertatu bada eta hilean 15 egunetan baino gehiagotan errepikatzen bada, % 10eko zigorra ezarriko da hileko ziurtagirian.

- Programatutako laginketak ez betetzea, isurketetarako baimena betetzeko, SEEP substantziak eta uretan eta lohietan lehentasunezkoak diren substantziak aztertzeke, eta errautsen oinarritzko konposizioaren analisia betetzeko programatutako laginketak ez betetzea, eta hirugarren mailako tratamenduaren efluentearen analisi mikrobiologikoa ez egitea.

Planifikatutako laginketa horietatik bi hilabete baino gehiago atzeratzen badira, hileroko ziurtagirian % 5eko kenkaria ezarriko da zigor gisa. Atzerapena aurreko atalekoak ez diren beste lau laginketa planifikatutan gertatzen bada, zigorra % 10ekoa izango da, eta horrela hurrenez hurren. Guztizko zigorra ez da izango laginketa horiek planifikatuta zeuden hilabeteari dagokion hileko ziurtagiriaren % 20tik gorakoak.

- Programatutako analisisien emaitza analitikoak bidaltzeko epeak ez betetzea (2. taulako 7.etik 16.era bitarteko errenkadak).

Hileko ziurtagiriaren zenbatekoaren % 5eko zigorra izango du, baldin eta kontratistaren laborategiak aztertzen dituen programatutako lagingen emaitza analitikoak eta Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian zehaztuta eman behar dituzten txostenak gehienez 45 egun naturaleko epean jaso ez badira, lagingak bidali eta/edo hartzen direnetik aurrera.

Era berean, adjudikaziodunak balorazio positiboa izan badu hobekuntza teknikoetan –45 egun naturaletik beherako entrega-epea eman duelako–, baina konpromiso hori betetzen ez badu, ez-betetzetzat hartuko da eta hileko ziurtagirian % 10eko zigorra aplikatuko da.

- Salbuespenezko analisisien emaitza analitikoak bidaltzeko epeak ez betetzea (2. taulako 17.etik 58.era bitarteko errenkadak).

Salbuespenezko analisisiei dagozkien emaitza analitikoaren bidalketak 10 egun balioduneko gehieneko epea gainditzen badu, 2. taulako prezio unitarioaren % 10eko zigorra aplikatuko da.

Era berean, adjudikaziodunak balorazio positiboa izan badu hobekuntza teknikoetan –10 egun baliodunetik beherako entrega-epea eman duelako–, baina konpromiso hori betetzen ez badu, ez-betetzetzat hartuko da eta 2. taulako prezio unitarioaren % 20ko zigorra aplikatuko da.

Emaitzak presaz eskatzen badira eta ezarritako epea betetzen ez bada –gehienez lau egun baliodun, OEB analisisietarako eta ur eta lohietako guztizko metalen



M.- ZIGOR ZEHATZAK

analisietarako izan ezik, kasu horietan zazpi egun baliodunekoa izango baita epea– , 2. taulako prezio unitarioa bakarrik ordainduko da, presako lagin mota hauetarako aurreikusitako % 30eko gehieneko gainkostua aplikatu gabe. Era berean, adjudikaziodunak balorazio positiboa izan badu hobekuntza teknikoetan, presako laginetarako ezarritakoak baino epe laburragoak eskaini dituelako, baina konpromiso hori betetzen ez badu, ez da gainkostu gehigarria aitortuko.

- Hileko zerrenda baloratuak entregatzeko epea ez betetzea. Ordainketa-erregimena ez betetzeak, hileko zerrenda baloratuak epe barruan betetzeari dagokienez, % 10eko zigorra ekarriko du ez-betetzea gertatzen den hilaren hileko ziurtagirian.
- Akatsak egitea fakturazio-prozesuan:
Fakturazio-prozesuan behin eta berriz akatsak egiten direnean –adibidez, eskaintako prezio unitarioen arabekoak ez diren fakturak, balio desberdinak dituzten fakturak eta BEZa biribiltzearekin arazoak dituzten fakturak jaulkitzea hiru hilabetez jarraian–, % 5eko zigorra ezarriko da ondoz ondoko aurreko hiru ziurtagiri akastunen hurrengo ziurtagiriaren ordainketan.

Sei hilabeteko epean sei ez-betetze baino gehiago gertatzen badira, eta horietan aurreko ataletako edozein betetzen ez bada, kontratua deuseztatu ahal izango da, betiere Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurrez ez-betetzeen berri eman badu.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztatzea.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Lizitatzailleek, eskaintza teknikoan, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia zein den adierazi beharko dute, azpikontratataren izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak adierazita, eta behar bezala justifikatu beharko dute azpikontratatistak zeregin horiek gauzatzeko gaitasuna duela, azpikontratatu den laborategiaren ENAC egiaztatzea, baliabide teknikoak eta giza baliabideak oinarri hartuta.

P.- SUBROGAZIOA

BAI, AKPAren eranskinaren arabera.

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Kontratuaren arduradunak kontratistaren ordezkariarekin koordinatu beharko du lantaldeak egin behar dituen atazak antolatzeko eta esleitzeko.

Galindoko HUAren, ibaien, estuarioen eta hobien laginketa egiteko eta HUA periferikoen laginketan laguntzeko, laginketa-teknikari bat beharko da. Zerbitzua lanaldi osoan emango da.

Laginketak HUA periferikoetan egiteko, hiru laginketa-teknikari beharko dira. Horiek kontrataren ibilgailuak izango dituzte, eta egunero laginketa-ibilbideak egin eta laginak entregatuko dituzte Galindoko HUAn. Bi laginketa-teknikarik lanaldi osoan emango dute zerbitzua, eta laginketa-teknikari batek lanaldi partziallean (% 50).

Lantaldea osatzen duten teknikarien oporrak eta bajak antzeko profil eta gaitasun teknikoa duten beste teknikari batzuek bete beharko dituzte. Ordezkoei dagokienez, kontratuaren adjudikaziodunak egindako proposamena gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko da.

Oporrengatik edo bajengatik ordezkapenak egiten dituzten langileek lanak egiteko behar besteko kualifikazioa izan beharko dute, eta, hala ez bada, gutxienez 15 egunez egon beharko dute ohiko lagin-hartzailearekin, laginketa-ibilbide guztiak ezagutu ahal izateko (15 egunean behin errepikatzen dira, blokean).

Horrela, ordezkoak laginketaren xede diren HUA guztiak ezagutu ahal izango ditu (15 eguneko ziklo bakoitzean behin errepikatzen dira). Langile titularren eta prestakuntza-prozesuan dauden ordezkoen arteko gainjartzeek eragindako gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira BBUPen eremuan bere jarduera garatzeko langileak lekuz aldatzeagatik sortzen diren mota guztietako gastuak.

Kontratistaren ordezkaria.

Kontratuaren adjudikaziodunak pertsona bakarra izendatuko du kontratistaren ordezkari bezala, eta pertsona hori arduratuko da adjudikaziodunaren eta BBUPen arteko elkarriketez eta lantaldea zuzentzeaz. Halaber, lanen garapenean sor daitezkeen zalantzak argitzeko kontsultak egingo ditu. Goi-mailako unibertsitate-titulua duen ordezkari bat izendatu beharko da.

Kontratistak, egin beharreko lanak gauzatzean, hauetan guztietan jasotako betekizunak bete beharko ditu: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arauketa-esparruaren aldaketan (54/2003 Legea), 171/2004 Errege Dekretuan eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan aplikatu daitezkeen arau guztietan jasotakoak.

Dokumentu bat aurkeztu beharko da, konpromiso hau hartzeko: zerbitzuari atxikitako langileek ez dute inola ere erabiliko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Saneamendu Laborategiaren (LE/489) ENAC marka, eta ez dute akreditazioa aipatu ere egingo.